

Txistuka esnatu da gaur eguna. Udazkeneko haize zakarrak indartsu jo du erietxeko hirugarren solairuaren amaieran dagoen 344. gelako leihoan eta esnatu egin nau. Inoiz baino lehenago begiak zabaldu ditut, burua altxa eta Ameliaren ohea hutsik ikusi dut. Amelia ez zegoen han. Irri egin dut ia oharkabea. Neguak hoztu dituen parajeei begira jarri naizenean, "Hireak Edurne, itxoin beharra zeukan!" esan du nire baitango ahotsak. Norbaitek atea zabaldu du. Maialen zen, unibertsitate garaian nire ikaskidea izandakoa. Ikasketak amaitu eta handik gutxira hasi zen lanean ospitale honetan. Egunero etortzen da bisitan.

- Egunon Edurne! Zer moduz aurkitzen da gure amatxo?
- Ondo Maialen, eskerrikasko. Aizu! Amelia ez dago bere ohean!
- Ez, baina laster ekarriko dute. Mutiko eder bat izan berri du.
- Banekien!
- Zer, mutikoa izango zela?
- Ez ez, gaur jaioko zela! Ameliaren urtebetetze eguna da!!
- A ze kasualitatea!!

Askotan esan nion Ameliari, umea bera jaio zen egun berean jaioko zela. Horrelakoetan, kasualitateek ez dute hutsik egiten.

Nire egoera berriz, nahiko bestelakoa da. Orain dela bi aste heldu nintzen erietxera. 7 hilabete bete berriak ditut baina dirudienez, Uxue hor barruan egoteaz aspertu egin da eta irten egin nahi du. Oraindik ordea, goiztxo da berarentzat.

Egunak luzeak egiten dira ohetik mugitu ezin duzunean. Hortik lerro hauek idazteko ideia. Baina nire asmoa ez da haurdunaldi baten kronika egitea. Nik, beste istorio bat kontatu nahi dut. Asko hunkitu ninduen istorio bat. Plazer baduzu, utzi zure begiei lerro hauetan zehar labain egiten eta ezagutu ezazu zer nolakoa zen "Felixaren felizitatea."

Oraindik ongi oroitzen dut Felix a ekarri zuten egun hura. Uztailaren 31 zen. Alabak eta suhiak lagunduta iritsi zen. Erizainen buruak, bezero berri bat zetorrela eta bere kargu egiteko eskatu zidan.

- Felisa Arruabarrena. Gaur iristekoa da. Hemen duzu bere datu orria: 78 urte, Lazkaotarra, alarguna, bi seme alaba... Hamairugarren gela da berea.

Hantxe nengoen ni beraz, ate ondoan, Felixaren zain. Arratsaldeko bostak inguru horretan iritsi zen.

- Arratsalde on. Felisa ezta?
- Felisa ez!! Inporta ez bazaizu Felix a!!

- Zuk nahi duzun moduan, Felix. Ongi etorri. Lehenik zure gelara eramango zaitugu. Maletak utzi eta inguruak ikustera joango gara gero. Ongi iruditzen al zaizu?

- Bai, bai.

Alabaren besoari eutsita zihoan Felix pasabidean barrena. Burumakur, ez zen alabaren sorbalda parera iristen. Pausoa hala ere nahiko arina zuen bere adinerako. Ez zen ttiitiiiiitipi - ttaaaaaaapa joaten, ttipi - ttipa, ttipi- ttipa egiten zuen aurrera. Hori bai, pauso txikiak ziren Felixarenak, ia - ia ibiltzen ikasi berri duen haur baten modukoak. Ilea txuria, eta betaurreko borobil - borobilak sudurraren gainean. Horrela oroitzen dut egun hartako Felix. Igogailu parera iritsi eta...

- Tramankulu honetan igo behar al de?

- Bai ama.

- Bildurra emateit ba!! Ni oinez nijua!!

- Lasai Felix, - esan nion nik bere urduritasunaz jabetuta - ez da ezer gertatuko. Ni egunero egunero ibiltzen naiz tramankulu honetan eta inoiz ez da ezer gertatu. Ez duzu beldurrik izan behar.

- Seurua al da, bai?

- Tranquillicese Felisa que no le va ha pasar nada. - Esan zion ordurarte isilik egon zen suhiak.

- Felisa eta Felisa, ezetz ba!! Honek ez du sekula ikasiko!!

Ausart jokatu zuen Felixak eta igogailu barrura sartu zen aitaren egiten zuela. Bere gelako atera iritsi eta hamairu zenbakia ikusi zuenean...

- Ez diazue gela politta aukeratu, hamairugarrena alajaina!!

- Ama!! Hoiek txoakeriak dia!!

Gela erakutsi ondoren, lorategira lagundu nuen Felix bere senideez agur zedin. Bere begi tristeez salatzen zuten amona gaixoa, ez zuela han geratu nahi zioten.

- Zorione, ez aztu kanposantutik pasatzia e!! Ie aita zanak urtiak dittun gaur ta...

- Bai ama!! Eon zaitez lasai, jungo gea ta!!

- Ez diazue onea etorri baino lehen joten utzi ta!! Ai Inaxio, nere Inaxio mattia!!

- Ikusiko zu ze ondo biziko zean hemen ama!! Gu oain oporreta goaz Andaluzia aldea, Albertok hamabost eguneko oporrak hartu ditu ta. Bueltatze geanen etorriko gea bisitan.

-Ya vera, aquí será muy feliz, Felisa.

Askok egiten zuten hori. Oporretara joan aurretik uzten zuten ama, aita, aitona edo dena delakoa zahar egoitzan. Badakizu, enbarazu bat gutxiago!! Besotik hartu, eta jantokia, egon gela, sukaldea eta eraikineko txoko interesgarri guztiak

erakutsi nizkion. Afaltzen ez zuen ia ezertxo ere jan. Aldaketa gehiegi hain ordu gutxitan. Eguna oraindik guztiz ilundu gabe zegoela sartu zen ohean.

Lehenengo egunak gogorrak egin zitzaizkion, ohikoa den bezela. Pare bat aste igaro ziren Felixak lehenengo irria egin aurretik. Adiskideak egin zituen, Karmen, Nikolasa eta Tomas, Felixaz gain, han zeuden euskaldun bakarrek. Arratsaldean, afaldu baino lehenago punttuan ibiltzeko ohitura ere hartu zuen. Nik berriz, Felixari lotzen ninduen zerbait sentitzen nuen. Ez dakit zer zen, baina lokarri moduko horren ondorioz bere konfidantza irabazten saiatu nintzen, niregan adiskide bat aurki zezan. Lorategian paseo luzeak ematen genituen elkarrekin.

- Edurne. Izen polita dakazu. Gaiena, ondo doakizu!!
- A bai? Zergatik ba?
- Beti bata txuri horrekin ibiltzen zealako!! Hemendik aurrea, Edurne Zuri dettuko izut!! Ne biloban ipuinik gustokona da.

Eta handik aurrera, Edurne Zuri deitu zidan.

- Bi seme - alaba dituzu ezta Felixak?
- Bai. Alaba ezautzen dezu, Zorione, onea etorri zana. Semia berriz Xabier. Baina kanpua lan itten du ta oso gutxitan etortzea.
- Eta, bilobak nola izena du?
- Ane. Oso neska polita!! Sei urte in dattu aurten. Eta zu Edurne Zuri, ezkondu al zaude?
- Bai, orain dela bi urte ezkondu nintzen.
- Eta ama izatea iritsi al zea?
- Oraindik ez Felixak, baina horretarako bidean nago.
- Ez da egiya izango!! Lirain mantentzen zea ba!! Zenbatekua zaude?
- Hilabete justu.
- Oraindik orduan puxka bat falta zaizu.

Bere bi haurdunaldiak nolakoak izan ziren kontatzen aritu zitzaidan orduan. Lehenengo aldian gaizki pasa zuela kontatu zidan, baina horrek ez ziola beste seme bat izateko gogorik kendu eta bigarrenengo bat izatera animatu omen zen. Bigarren haurdunaldia hobe izan zela zioen, esperientziagatik edo. Harro kontatzen zuen zenbat lan egindakoak ziren bera eta bere senarra zena, bai semea eta bai alabari tajuzko ikasketak batzuk ordaindu ahal izateko. Eskuak erakutsi zizkidan ondoren, nire begiekin ikus nezan, lan handia egindakoak zirela.

Gustora egoten nintzen ni Felixaren hitz jariora entzuten. Beste askoren modukoa eman zezakeen, baina beti zuen zerbait interesgarria esateko, entzuteko bera izanez gero, noski. Bere senarrarekin ezkondu baino lehenago bizi izan zuten maitasun istorioa kontatu zidan behin. Nabari zen bai, faltan botatzen zuela.

- Inaxio hamasei urte nitula ezautu nun. Zeamarra zan. Ba al dakizu nola ezautu genun elkar? Ne aitta, apostu zale amorratua zan, inguruko erritako jendiakin iten zittun apustuk. Behin, Ordiziko perin Zeamako baserritar batekin oso apostu bitxiya in zun. Zegamar hori Inaxion aitta zan, Pedro izena zun. Ne aittak asto bat zakan salgai eta saldu eziñian zebilen. Pedro urbildu ta asto orrek ezertako balio etzula esan ziyon ne aittai. Attak, amorraturik, asto orren gañian pelotan aixe irabaziko ziyola erantzun ziyon. Bestiak ordun, sututa euna ta ordua jartzeko eskatu ta halaxe geatu zian Lazkaoko frontoiyan. Erritar mordua urbildu zan berta, eta jende guzti orren artian Inaxio zeon. Bere aittan botilero modun ibili zan gaiñea!!

- Felixa!! Esan ezazu behingoz!! Nork irabazi zuen apustua?

- Zeinek irabaziko zun ba!! Inaxion aittak!! Pelotak baju uzten zizkiyon ta ne aitta astuan gaiñetik etzan pelota oik arrapatzea ailatzen!! Geoztik, ainbat apustu in zittuen ne aittak ta Pedrok. Bata bestia baiño obia zala demostratzeko erronkaka ibili izandu zian urtetan. Eta bitarte ortan, Inaxio eta ni elkar maitemindu giñan. Oi bai, isilpian gorde genun gue maitasuna, ez be aittak ta ezta neriak ez paitzuten gue artekua ametituko. Girua baretu zanian anuntziatu genun guria.

Horrelako istorioez betetako kutxa bat zen Felixa. Segituan irabazi zuen besteen begirunea.

Egun haietako batean, alaba eta suhia etorri zitzaizkion bisitan. Oporretatik bueltan, opari bat zerkarten Felixarentzat.

- Buenos dias Felisa

- Igualmente!! - erantzun zion Felixak amorratuta.

- Zemuz ama? Ondo zaintzen al zattue?

- Bai, oso jende jatorra den. Beitu, au Edurne Zuri den, enfermera.

- Ezautzen deu lehendik de ama.

- Bai Felixa, ez al zea goatzen?

- Ane ez al den ikin ekarri? Aspaldin eztinat ikusi?

- Alberton aman etxian geatu da. Nekatuta zegon, biajia luzia izan da ta.

- Ta, zemuz oporretan?

- Oso ondo ama.

- Mire Felisa, le hemos traído un regalo.

- A si? Muchas Gracias.

Felixak ilusio handirik gabe zabaldu zuen oparia. Zaldi gainean zegoen gizon kapeladun baten irudia zen. Eta azpian “Andalucia” jartzen zuen.

- Le gusta?

- Mucho!! - Erantzun zion tonu desatsegin batekin. Ordu erdiz egon ziren Felixarekin. Geroztik, pixkanaka - pixkanaka, bisiten iraupena gutxituz joan zen.

Emakume adoretua zen Felixak zalantzarik gabe, hori igogailura sartzeko erabakia hartu zuen momentu hartantxe jakin nuen. Adoretua eta..argia, oso argia!! Ez zait sekula ahaztuko egoitzako lagunekin punttuan zebilenean izan zuten elkarriketa hura. Orduko hartan ere zorrotz ibili zen Felixak. Aitor erizainaren inguruko kontuak zerabiltzaten.

- Aizu Nikolasa, Felixak ez du jakingo Aitorren sekretua!!
- A!! Egiya!! - esan zuen Nikolasak eskuan zituen kartak mahai gainean kolpe batez uzten zituela.
- Ze sekretu da ba hori? Zeorrek e ba al dakizu Tomas?
- Bai emakumia!!
- Orduan ez da sekretua!!
- Zu ixo eta entzun ondo belarritik!! Aitor... beste bandokua da!!
- Beste bandokua? - galdetu zuen Felixak kopeta zimurtzen zuela.
- Bai Felixak!! Ez al dakizu ze esan nahi duen horrek?
- Marikoiya dala!! - esan zuen Nikolasak baxu eskua ahoaren albo batean jarritz
- Marikoiya.....marikoiya!! Umoxexuala esaten den neska!! - zuzendu zuen Felixak ozen.
- Shhhhhhhhhhhh...!!! - baxuago hitz egin zan emakumea, entzun egingo ziuten ta!!
- Ba hoi!! Umoxexuala esaten dala!! - berretsi zuen Felixak.

Barreari heldu ezinik egon nintzen egongelako txoko batean. Laukotearen puntu partida ez galtzen saiatzen nintzen, beti erreserbatzen nuen ordu horretarako egitekoren bat, egongelan eseri eta haiek eginez adintsuen txutxu mutxuak entzuteko. Egun osoko momenturik dibertigarriena izaten zen!! Hori eta...igandea, bisiten eguna. Felixak ere irria ahoan zuela irtetzen zen igogailutik igandero - igandero. Iraileko lehenengo igande hartan ustekabe goxo bat jaso zuen Felixak, haur baten irria bezain goxoa den ustekabea.

- Ane politt oi, etorri zea eta!! - egin zuen oihu bere biloba urrunetik ikusi zuenean.
- Begira Edurne Zuri, ze politta dan gure txikiya!!
- Oso politta da bai Felixak!! - erantzun nion nik. Ezarrita geunden eserlekura iritsi zirenean, agurtu eta bakarrik utzi nituen. Hala ere ez nintzen gehiegi urrundu, ozen esaten zituztenak entzuteko moduan nengoen orduan ere. Agian, kontu jalearen papera irabazten ari naiz, edo irabazia daukat, baina Felixarekiko nuen estimua oso handia zen. Horregatik, beragandik hurbil mantentzen saitzen nintzen, nire beharra bazuen ere bere alboan egoteko.
- Ane, eman muxu aundi bat amonari!!- esan zuen Felixak besoak zabaltzen zituela. Haurra, behartuta sentituko balitz bezala hurbildu zen amonarengana eta musu eman zion masailean. Amonak berriz, bere beso ahulekin inguratu zuen bilobaren gorputz estua.
- Ze pozik dagoen amona zu ikusita! Zemuz eskolan?
- Ondo.

- Eta txintxo portatzen al zea?
- Bai.- Haurra lotsatuta edo, amonaren besoetatik askatu eta bere aitaren gorputz sendora hurbildu ostean sutsuki besarkatu zuen, gizonaren gerria erdizka inguratzen zuela. Amak hartu zuen hitza.
- Ane, zer? amonaren aurrean lotsatzen al zea? - Umeak ez zuen erantzun.
- Jakina!! Ez tezue ni ikustea ekartzen ta!! Baina emendik aurrea geiotan etorriko zea baietz?? - Buruarekin baiezkoa eman zion amonaren galderari. Aitak besoetan hartu zuen, eta handik gutxira...
- Sorione, la niña se está durmiendo, te espero en el coche. - Esan zion emazteari. - Benga Ane, dale un musu a la amona!!
- No quiero!! - egin zuen oihu eta lasterka alde egin zuen.
- Bueno Felisa, cuidese.
- Felisa no, Felixa!! - gaineratu zuen amonak.

Felixak momentu horretan senti zezakeena pentsatu nuen lipar batean. Begiak ur gaziz betearazi zizkidan, gainezka egin eta masailak zeharkatuz bere bidea hartzen zuen malko bakoitzak. Noski, bisita hark ez zion Felixari eguna pentsatu bezain beste poztu. Ilundu aurreko orduetan goibel somatu nuen amona gaixoa, erdizka egiten zuen farre. Gau hartan ez zen afaldu ostean telebista ikusten geratu, inoiz baina lehenago oheratu zen. Bere ausentziaz jabetuta Felixaren logelarako bidea hartu nuen.

- Felixa, ondo al zaude?
- Bai Edurne Zuri. Nekatuta nao, besteik ez. - Ohe ertzean eseri eta eskua hartu nion emeki-emeki laztantzen nuela.
- Felixa, zuk ez duzu triste egoterik merezi. Alaitu aurpegi hori!!
- Nola alaituko et ba aurpegiya..

Momentu horretan begi niniak dardar egin zioten eta bere begi beltz handiak inoiz baina bildurtiagoak, ilunagoak ziruditen. Bihotza ximurtzen zidan egoerak.

- Ne familiyak enau maite!!- negarrez lehertu zen Felixa
- Nola esan dezakezu hori ordea!! Ni ziur nago Zorionek asko maite zaituela eta Anek ere bai!!
- Ezta egiya eta arrazoiya dakate, ni bezelako amona zahar batek enbazu besteik ez die ingo. Inaxion ondoa jun nahi det, arek bakit matte naula.

Amona kontsolatzen sailtu nintzen baina alferrik. Saiakera hark ez zuen fruiturik eman. Akituta irten nintzen bere gelatik, nire sabelari heldu nion, "berak ez dit horrelakorik egingo" pentsatuz bezala. Baina alferrik zen, penaz gain beldurra sentitu nuen momentu hartan, zahartzaroari beldurra.

Egun hura joan zen ordea eta hurrengo igandea berehala heldu zen. Orduko bisita ez zen hain jendetsua izan. Niregana zuzendu zen lehenik Zorione.

- Kaixo Edurne. Zer moduz ikusten dezu nere ama? - Egia erantzun nion, edo esan nezakeen egia behintzat.
- Azken aste honetan oso goibel egon da.
- Zure aholkua nahi dut Edurne. Amari gauza garrantzitsu baten berri eman beharrian naio, baino ez dakit bate onik eingo ote diyon. Igual gehiago goibelduko da.
- Lehendik ere nahiko triste dago eta nire errespetu guztiarekin, Felixari ez zaio komeni gehiago goibelduko duen berri txarrik jasotzea.
- Arrazoi dezu horretan baino...jakiteko eskubide guztia daka. Nun dao?
- Egongelan dago. Nik esan dizut pentsatzen dudana, hortik aurrera zeuk ikusi.
- Eskerrikasko Edurne.

Ez nuen ordea alabak kasu egingo zidan esperantzarik. Zoritxarreko Zorione egoitzako atetik ateratzen ikusi nuen bezain pronto, egongelara joan nintzen Felixan han egongo zelakoan. Ez nuen han aurkitu, lorategiko eserleku batean topatu nuen geroago. Zuzen nenbilen, alabak eman zion ustez eta izatez Felixan gehiago atsekabetuko zuen berri hura.

- Felixan, goazen barrura, hemen kanpoan hoztu egingo zara!!
- Ez dakat otzik Edurne Zuri.- esan zidan dar-dar batean.
- Ez dio axola, goazen barrura. - Egongelako txoko batean eseri ginen eta orduan, amona gaixoak negarrari ekin zion. Estu besarkatu nuen, nire indar guztiarekin.
- Lasai egin negar Felixan, ona da eta barruak askatzeko. Baina esadazu, zer gertatzen zaizu?
- Zorionek baserria saldu du. Alberton negoziyuak ez omen dijuaz oso ondo ta oso garesti ateatze omen zaiye egoitza patzia. Eztuela beste erremeiyoik izan!! Baino nik diru bat badet aurreauta, hain garestiya al da hau??

Benetan diot irakurle, ez dago amona bat negarrari eutsi ezinik ikustea baino irudi tristeagorik. Felixan itzaltzen joan zen piskanaka. Jada ez zen haserako hitzontzi hura, jada ez zuen irri egiten. Halere, bere 79. urtehurrenean festa xume bat antolatu nahi izan nuen Felixan alaituko nuena itxaropenean. Felixak irri egitea lortu genuen bai, baina irri hori bere esker onaren adierazle izan zen eta ez nahi bezala bere pozaren islada. Opari berezi bat egin nion. Edurne Zuriren irudi txiki bat zen.

- Eskerrikasko Edurne Zuri. Begiratzen dudana bakoitzian zutaz akordatuko naiz. - Esan zidan.

Egun hartan, Felixak ez zuen bisitarik eduki, telefono dei bat besterik ez. Egun hartan, Felixak ez zuen lagunekin punttuan jokatu. Egun hartan, Felixan ez zen afaltzera jaitsi. Egun hartan amaitu zen Felixaren felizidadea.

Felixaren Felizidadea

Zube
20 urte